# §A2-III

## NORMA FORAL 5/2018, DE 21 DE NOVIEMBRE, DE CONFLICTO DE INTERESES E INCOMPATIBILIDADES

## INTERES-GATAZKEI ETA BATERAEZINTASUNEI BURUZKO AZAROAREN 21EKO 5/2018 FORU-ARAUA

# NORMA FORAL 5/2018, DE 21 DE NOVIEMBRE, DE CONFLICTO DE INTERESES E INCOMPATIBILIDADES

(BOB nº 238, de 12 de diciembre de 2018)

**SUMARIO**

**PREÁMBULO**

**TÍTULO I.- DISPOSICIONES GENERALES**

Artículo 1.- Objeto.

Artículo 2.- Ámbito de aplicación.

Artículo 3.- Catálogo de cargos públicos forales.

**TÍTULO II.- PRINCIPIOS ÉTICOS Y DE BUEN GOBIERNO**

Artículo 4.- Principios éticos y de buen gobierno.

Artículo 5.- Principios Éticos.

Artículo 6.- Principios de Buen Gobierno.

Artículo 7.- Principios de relación con la ciudadanía.

Artículo 8 – Relación de instrumentos para la materialización de los principios.

**TÍTULO III. DE LA PREVENCIÓN Y DETECCIÓN DE LOS CONFLICTOS DE INTERÉS**

Artículo 9.- Conflictos de interés.

Artículo 10.- Modalidades de conflictos de interés.

Artículo 11.- Sistema de alerta temprana para la prevención y detección de potenciales conflictos de interés.

Artículo 12.- Deber de abstención e inhibición.

Artículo 13.- Prevención de conflictos de interés durante el ejercicio del cargo como consecuencia de circunstancias previas al ejercicio del cargo.

Artículo 14.- Limitaciones y prohibiciones al ejercicio de actividades privadas con posterioridad al cese como cargo público foral.

Artículo 15.- Mecanismos de prevención de conflictos de interés tras el cese como cargo público foral o conflicto “ex post”.

Artículo 16.- Limitaciones patrimoniales en participaciones societarias.

Artículo 17.- Control y gestión de activos y valores financieros de las personas designadas cargos públicos forales.

**TÍTULO IV.- ESTATUTO DE LA PERSONA NOMBRADA CARGO PÚBLICO FORAL Y RÉGIMEN DE INCOMPATIBILIDADES**

CAPÍTULO I.- ESTATUTO DE LA PERSONA NOMBRADA CARGO PÚBLICO FORAL

# INTERES-GATAZKEI ETA BATERAEZINTASUNEI BURUZKO AZAROAREN 21EKO 5/2018 FORU-ARAUA

(238 zenbakidun BAO, 2018.eko abenduaren 12koa)

**SUMARIOA**

**HITZAURREA**

**I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua.- Xedea.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua.

3. artikulua.- Foru-kargu publikodunen katalogoa.

**II. TITULUA.- PRINTZIPIO ETIKOAK ETA GOBERNU ONARENAK**

4. artikulua.- Printzipio etikoak eta gobernu onarenak.

5. artikulua.- Printzipio etikoak

6. artikulua.- Gobernu onaren printzipioak

7. artikulua.- Herritarrekiko harremanetarako printzipioak

8 artikulua – Printzipioak gauzatzeko tresnen zerrenda.

**III. TITULUA. INTERES-GATAZKAK PREBENITZEA ETA DETEKTATZEA**

9. artikulua.- Interes-gatazkak

10. artikulua.- Interes-gatazkaren modalitateak

11. artikulua.- Sor daitezkeen interes-gatazkak garaiz prebenitzeko eta detektatzeko alerta-sistema

12. artikulua.- Abstenitzeko eta inhibitzeko betebeharra

13. artikulua.- Karguan aritu aurreko inguruabarren zioz karguan aritu bitartean sor daitezkeen interes-gatazkak prebenitzea.

14. artikulua.- Mugak eta debekuak foru-kargu publikoa utzi ondorengo jarduera pribatuetan.

15. artikulua.- Foru-kargu publikoa utzi ondorengo interes-gatazkak prebenitzeko mekanismoak.

16. artikulua.- Ondare-mugak sozietate-partaidetzetan.

17. artikulua.- Foru-kargu publikodunen finantza-aktiboen eta baloreen kontrola eta kudeaketa.

**IV. TITULUA.- FORU-KARGU PUBLIKODUNEN ESTATUTUA ETA BATERAEZINTASUNEN ARAUBIDEA**

I. KAPITULUA.- FORU-KARGU PUBLIKODUNEN ESTATUTUA

| | |
|---|---|
| Artículo 18.- Nombramiento como cargo público foral con rango de director o directora general o asimilada: Requisitos y declaración responsable. | 18. artikulua.- Foru-kargu publikodun izendatzea zuzendari nagusiaren edo antzekoaren mailarekin. Betekizunak eta erantzukizunpeko adierazpena. |
| CAPÍTULO II.- SISTEMA DE INCOMPATIBILIDADES DE LAS PERSONAS DESIGNADAS CARGOS PÚBLICOS FORALES | II. KAPITULUA.- FORU-KARGU PUBLIKODUNEN BATERAEZINTASUNEN SISTEMA |
| Sección Primera.- Dedicación y retribuciones de las personas designadas cargos públicos forales | Lehen atala.- Foru-kargu publikodunen dedikazioa eta ordainsariak |
| Artículo 19.- Dedicación exclusiva de las personas designadas cargos públicos forales. | 19. artikulua.- Foru-kargu publikodunen dedikazio esklusiboa. |
| Artículo 20.- Retribución única. | 20. artikulua.- Ordainsari bakarra. |
| Artículo 21.- Derechos pasivos y Seguridad Social. | 21. artikulua.- Eskubide pasiboak eta Gizarte Segurantza. |
| Sección Segunda.- Limitaciones e incompatibilidades derivadas de la condición de cargo público foral | Bigarren atala.- Foru-kargu publikoduna izatearen ondoriozko mugak eta bateraezintasunak |
| Artículo 22.- Limitaciones e incompatibilidades. | 22. artikulua.- Mugak eta bateraezintasunak. |
| Artículo 23.- Naturaleza excepcional de las compatibilidades. | 23. artikulua.- Bateragarritasunen salbuespen-izaera. |
| Artículo 24.- Compatibilidad con actividades privadas. | 24. artikulua.- Bateragarritasuna jarduera pribatuekin. |
| Artículo 25.- Compatibilidad con actividades públicas. | 25. artikulua.- Bateragarritasuna jarduera publikoekin. |
| Artículo 26.- Compatibilidad con cargos electivos. | 26. artikulua.- Bateragarritasuna hautapenezko karguekin. |
| Artículo 27.- Otras actividades compatibles: actividades formativas y docentes. | 27. artikulua.- Beste jarduera bateragarri batzuk: prestakuntza- eta irakaskuntza-jarduerak. |
| Artículo 28.- Procedimiento de declaración de compatibilidad. | 28. artikulua.- Bateragarritasuna deklaratzeko prozedura |
| **TÍTULO V.- ÓRGANOS E INSTRUMENTOS DEL SISTEMA DE GARANTÍAS DE LA PRESENTE NORMA FORAL** | **V. TITULUA.- FORU ARAU HONETAKO BERMEEN SISTEMARAKO ORGANOAK ETA TRESNAK** |
| CAPÍTULO I.- ÓRGANOS DEL SISTEMA DE GARANTÍAS DE LA PRESENTE NORMA FORAL | I. KAPITULUA.- FORU ARAU HONETAKO BERMEEN SISTEMARAKO ORGANOAK |
| Artículo 29.- Órgano de Garantía. | 29. artikulua.- Berme Organoa. |
| Artículo 30.- Colaboración con el Órgano de Garantía en el ejercicio de las funciones establecidas en esta Norma Foral. | 30. artikulua.- Berme Organoarekin lankid etzan aritzea foru arau honetan ezarritako eginkizunak betetzeko orduan. |
| CAPÍTULO II.- DECLARACIONES DE ACTIVIDADES Y DE BIENES E INTERESES DE LAS PERSONAS NOMBRADAS CARGOS PÚBLICOS FORALES | II. KAPITULUA.- FORU-KARGU PUBLIKODUNEN JARDUEREN ETA ONDASUN ETA INTERESEN AITORPENAK |
| Artículo 31.- Declaración de actividades. | 31. artikulua.- Jardueren aitorpena. |
| Artículo 32.- Declaración de bienes e intereses. | 32. artikulua.- Ondasunen eta interesen aitorpena |
| Artículo 33.- Régimen de los Registros. | 33. artikulua.- Erregistroen araubidea. |
| Artículo 34.- Informe a las Juntas Generales sobre el grado de cumplimiento de esta Norma Foral. | 34. artikulua.- Foru arau honen betetze-mailari buruzko txostena egitea Batzar Nagusiei. |
| **TÍTULO VI.- RÉGIMEN SANCIONADOR** | **VI. TITULUA.- ZEHAPEN-ARAUBIDEA** |
| Artículo 35.- Infracciones. | 35. artikulua.- Arau-hausteak. |
| Artículo 36.- Sanciones. | 36. artikulua.- Zehapenak. |
| Artículo 37.- Prohibición de contratar. | 37. artikulua.- Kontratatzeko debekua. |
| Artículo 38.- Actuaciones previas al procedimiento sancionador. | 38. artikulua.- Zehapen-prozeduraren aurretiazko jarduketak |
| Artículo 39.- Resolución. | 39. artikulua. - Ebazpena. |
| Artículo 40.- Prescripción. | 40. artikulua.- Preskripzioa. |

Artículo 41.- Responsabilidades derivadas.

**DISPOSICIONES ADICIONALES**

Disposición Adicional Primera.- Excepción del ámbito de aplicación de la Norma Foral al Diputado o Diputada General de Bizkaia.

Disposición Adicional Segunda.- Conceptos de retribución, incentivo, dieta e indemnización.

Disposición Adicional Tercera.- Subsistencia de Incompatibilidades.

Disposición Adicional Cuarta.- Prestación compensatoria durante el período de prohibición de actividad privada posterior al cese como cargo público foral.

Disposición Adicional Quinta.- Comunicación de contrataciones de entidades del sector público que afecten al ámbito de aplicación de esta Norma Foral.

Disposición Adicional Sexta.- Modelos de Declaraciones de Actividades y de Bienes e Intereses.

**DISPOSICIONES TRANSITORIAS**

Disposición Transitoria Primera.- Declaraciones de las personas designadas cargos públicos forales nombradas o contratadas con anterioridad a la entrada en vigor de esta Norma Foral.

Disposición Transitoria Segunda.- Compatibilidades autorizadas previamente a la aprobación de esta Norma Foral.

Disposición Transitoria Tercera.- Vigencia de disposición reglamentaria.

Disposición Transitoria Cuarta.- Aplicación de las prohibiciones posteriores al cese como cargo público.

**DISPOSICIÓN DEROGATORIA**

**DISPOSICIONES FINALES**

41. artikulua.- Erantzukizunak.

**XEDAPEN GEHIGARRIAK**

Lehenengo xedapen gehigarria.- Salbuespena: Ahaldun Nagusia foru arau honen aplikazio-eremutik kanpo uztea.

Bigarren xedapen gehigarria.- Kontzeptuak: ordainsaria, bidaia-sariak eta kalte-ordaina.

Hirugarren xedapen gehigarria.- Bateraezintasunak egotea.

Laugarren xedapen gehigarria.- Konpentsazio-prestazioa, foru-kargu publikoari utzi ondoren ezarritako jarduera pribaturako debekualdian zehar.

Bosgarren xedapen gehigarria.- Sektore publikoko entitateek egiten dituzten foru arau honen aplikazio-eremuko kontratazioak jakinaraztea.

Seigarren xedapen gehigarria.- Jardueren aitorpenaren eta ondasunen eta interesen aitorpenaren ereduak.

**XEDAPEN IRAGANKORRAK**

Lehenengo xedapen iragankorra.- Foru arau hau indarrean jarri baino lehen izendatutako edo kontratatutako foru-kargu publikodunen aitorpenak.

Bigarren xedapen iragankorra.- Foru arau hau indarrean jarri baino lehen baimendutako bateragarritasunak.

Hirugarren xedapen iragankorra.- Erregelamenduzko xedapenen indarraldia.

Laugarren xedapen iragankorra.- Kargu publikoa utzi ondorengo debekuak aplikatzea.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

**AZKEN XEDAPENAK**

## PREÁMBULO

### I

En el marco del buen gobierno, la Diputación Foral de Bizkaia se compromete en su Plan de Gobierno, a aprobar una Norma de conflicto de intereses e incompatibilidades para las personas designadas altos cargos de la Diputación y del sector público foral del Territorio Histórico de Bizkaia, la cual viene a complementar las herramientas de gobernanza, en materia de transparencia, participación, rendición de cuentas y relación con la ciudadanía.

Asimismo, la norma foral vigente que regula lo relacionado a incompatibilidades de cargos públicos, que data del año 1987, requiere que el contenido de dichas incompatibilidades haya de ser actualizado y adaptado al nuevo contexto sociopolítico actual, estableciendo principios y mecanismos de regulación y detección de conflictos de intereses e incompatibilidades con un alcance equilibrado y preventivo, capaz de garantizar una buena gobernanza.

Desde hace algunas décadas, las democracias avanzadas están llevando a cabo una apuesta decidida por reivindicar los valores en las organizaciones públicas y en el modo de ejercer la política, la dirección pública y la actividad del personal empleado público. Una vez más los países anglosajones han sido pioneros en esta tendencia, especialmente países como Canadá, Reino Unido o Nueva Zelanda. Dichos países están trabajando en llevar la innovación a la gobernanza y buen gobierno, estableciendo regulaciones en torno a los conflictos de intereses e incompatibilidades en relación a los cargos públicos, constituyendo así modelos de gobernanza preventivos basados en generar cultura de buen gobierno.

Asimismo, la OCDE, desde finales del siglo XX e inicios del XXI, lleva impulsando una política de desarrollo de la ética pública también en el ámbito de la función pública, y subraya la necesidad de establecer un sistema consistente de mecanismos de apoyo para:

- Comunicar e involucrar valores esenciales y estándares éticos para servidores públicos, con el fin de proveer lineamientos claros y asesoría en la solución de dilemas éticos.
- Promover estándares éticos, prevenir situaciones propensas a conflictos de intereses y premiar estándares de conducta elevados a través del desarrollo profesional.
- Monitorear el cumplimiento y reportar, detectar, investigar y sancionar las conductas indebidas.

Por ello, esta Norma Foral centra el foco de atención en la alta Administración Foral y en las entidades de su sector público foral, y más en particular en las personas que ocupan cargos públicos ejecutivos.

Así, en un marco de principios de buen gobierno, los niveles de responsabilidad de la alta administración foral y de sus entidades de sector público deben ser provistos entre personas que acrediten conocimientos y/o tengan una experiencia profesional contrastada, y en su cargo

## HITZAURREA

### I.

Bizkaiko Foru Aldundiak, gobernu onaren esparruaren barruan, konpromisoa hartzen du, bere Gobernu Planaren bitartez, interes-gatazkei eta bateraezintasunei buruzko foru arau bat onartzeko Aldundian zein Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoan goi-kargudun izendatutako pertsonentzat. Arau horrek osatu egingo ditu gardentasun, partaidetza, kontuak emate eta herritarrekiko harremanaren arloetako gobernantza-tresnak.

Goi-kargudunen bateraezintasunak arautzen dituen Foru Araua —gaur egun indarrean dagoena— 1987. urtekoa da, eta eguneratu egin behar da, bateraezintasunen edukiari dagokionez, oraingo testuinguru sozio-politikora egokitzeko. Hain zuzen, interes-gatazkak eta bateraezintasunak arautu eta detektatzeko printzipioak eta mekanismoak ezarri behar dira, gobernantza ona bermatuko duen eragin orekatu eta prebentibo batekin.

Badira hamarkada batzuk demokrazia aurreratuak apustua egiten ari direla zenbait balio sustatzeko, bai erakunde publikoetan, bai politikan eta zuzendaritza publikoan aritzeko moduan, bai eta enplegatu publikoek jarduteko moduan ere. Kasu honetan ere, herrialde anglosaxoiak lehenengoak izan dira joera hau bultzatzen, bereziki, Kanada, Erresuma Batua eta Zeelanda Berria. Herrialde horiek lanean ari dira berrikuntza gobernantzaren eta gobernu onaren arloetara eramateko. Horretarako, goi-kargudunen interes-gatazkei eta bateraezintasunei buruzko arauak ezarri dituzte, eta gobernu onaren kulturaren sorreran oinarritzen diren gobernantza-eredu prebentiboak sortu dituzte.

Halaber, XX. mendearen amaieratik eta XXI. mendearen hasieratik, ELGA etika publikoa garatzeko politika bat ari da bultzatzen funtzio publikoaren arloan ere, eta hori dela-eta adierazi du beharrezkoa dela laguntza-mekanismoen sistema sendo bat ezartzea hauetarako:

- Zerbitzari publikoentzako funtsezko balioak eta estandar etikoak eskaintzeko eta zerbitzariok haietan inplikatzeko, dilema etikoen konponbidean lerro argiak eta aholkularitza ematearren.
- Estandar etikoak sustatzeko, interes-gatazkak eragin ditzaketen egoerak prebenitzeko eta goi-mailako jokabide-estandarrak saritzeko garapen profesionalaren bidez.
- Estandarrak betetzen diren kontrolatzeko eta okerreko jokabideak jakinarazi, detektatu, ikertu eta zehatzeko.

Horregatik, foru arau honek arreta berezia jartzen du Goi-mailako Foru Administrazioan eta haren foru-sektore publikoaren entitateetan; batez ere, kargu publiko exekutiboetan dauden pertsonengan.

Gobernu onaren printzipioen esparru batean, Goi-mailako Foru Administrazioaren eta haren foru-sektore publikoaren entitateen erantzukizun-mailetan behar besteko ezagutza egiaztatzen duten eta/edo esperientzia profesional egiaztatua duten pertsonek egon behar dute,

deberán mostrar una conducta ética y ejemplar.

En este sentido, esta Norma Foral tiene por finalidad regular el estatuto de las personas que han sido designadas cargos públicos forales, poniendo el acento en tres cuestiones:

a) Proveer los principios éticos y de buen gobierno que deben servir para orientar el ejercicio de las funciones por parte de dichos cargos públicos de la Diputación Foral y de sus entes públicos instrumentales;

b) Establecer una regulación normativa de prevención e identificación de los conflictos de interés durante el cargo; y

c) Determinar los elementos básicos del estatuto de la persona nombrada cargo público foral, en las cuestiones relativas a la designación de tales cargos públicos y a su régimen de incompatibilidades y compatibilidades, en todo caso complementario de la regulación de conflictos de interés antes citada.

La Norma Foral pretende regular las situaciones de conflictos de interés e incompatibilidades que puedan surgir durante el ejercicio como cargo público, dotando de instrumentos que faciliten la detención temprana del conflicto o incompatibilidad y orienten a la persona designada cargo público en el procedimiento a seguir ante una situación de este tipo.

Por tanto, la Norma Foral pretende abrir una línea de trabajo de desarrollo de un modelo que vaya encaminado a prevenir, más que a sancionar ni a limitar, estableciendo los mecanismos e instrumentos necesarios para ello, garantizando la ejemplaridad en dichos cargos públicos, salvaguardar la imagen de la institución y reforzar la confianza de la ciudadanía en las instituciones.

## II

La presente Norma Foral actualizará y ajustará la actual normativa de incompatibilidades vigente en el Territorio Histórico de Bizkaia, definiendo una normativa que determine los principios de conducta ética y de buen gobierno de las personas nombradas cargos públicos, y defina de manera precisa cuál es el régimen jurídico de los conflictos de interés y del estatuto de tales cargos públicos forales, así como los mecanismos e instrumentos a utilizar para conseguir un modelo preventivo.

En el objetivo de actualizar y ajustar la actual normativa vigente, partimos de un marco jurídico que es de aplicación tanto a nivel estatal como de Comunidad Autónoma

Si bien y de acuerdo con el sistema de fuentes del Derecho aplicable en el Territorio Histórico de Bizkaia, la regulación de la materia de incompatibilidades de los y las miembros de la Diputación Foral y de las personas designadas altos cargos de la Administración Foral es privativa de los Órganos Forales del Territorio Histórico y, además, la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, llama a que sea una Norma Foral, en cuanto manifestación normativa primaria de las Juntas Generales, la disposición normativa que regule tal materia.

zeinek jokabide etikoa eta ereduzkoa izan behar duten karguan.

Ildo horretan, foru arau honen xedea foru-kargu publikodunen estatutua arautzea da, eta, arautze horretan, hiru alderdi hauek azpimarratu behar dira:

a) Foru Aldundiko eta haren entitate publikoetako kargu publikodun horiei printzipio etikoak eta gobernu onarenak eskaintzea, eginkizunak betetzean orientatzeko baliagarriak izango zaizkienak;

b) Karguan zehar prebentzioa egiteko eta interes-gatazkak identifikatzeko araudi bat ezartzea, eta

c) Foru-kargu publikodunen estatutuaren oinarrizko osagaiak erabakitzea, bai halako kargudunen izendapenarekin lotutako gaiei dagokienez, bai haien bateraezintasun- eta bateragarritasun-araubideari dagokionez. Araubide hori lehen adierazitako interes-gatazkaren araudiaren osagarri izango da.

Foru Arauaren bidez, kargu publikodun aritu bitartean sor daitezkeen interes-gatazkako eta bateraezintasuneko egoerak arautu nahi dira, eta, horretarako, kargu publikodunei tresnak emango zaizkie gatazka edo bateraezintasuna garaiz detektatu ahal izateko eta halako egoera batean zer prozedurari jarraitu behar dioten jakiteko.

Beraz, foru arau honen bidez, prebentziora —zehatzera edo mugatzera baino— bideratutako eredu baten garapenerako lan-ildo bat ireki nahi da, eta horretarako beharrezkoak diren mekanismoak eta tresnak ezarri nahi dira, eta, hori guztia, kargu publikodunen eredugarritasuna bermatzeko, erakundearen irudia zaintzeko eta herritarrek erakundeetan duten konfiantza sendotzeko.

## II

Foru arau honek eguneratu eta egokitu egingo du gaur egun Bizkaiko Lurralde Historikoan indarrean den bateraezintasunei buruzko araudia. Hain zuzen, zehaztuko du zein diren kargu publikodunen jokabide etikoaren eta gobernu onaren printzipioak, eta zehatzago definituko du zein den interes-gatazken eta halako foru-kargu publikodunen estatutuaren araubide juridikoa, bai eta prebentzio-eredu bat lortzeko zer mekanismo eta tresna baliatu behar diren ere.

Gaur egun indarrean den araudia eguneratu eta egokitzeko, hala Estatuan nola Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu behar den esparru juridiko batetik abiatu behar dugu.

Bizkaiko Lurralde Historikoan aplikatu behar den zuzenbide-iturrien sistemarekin bat, Foru Aldundiko kideen eta Foru Administrazioko goi-kargudunen bateraezintasunen gaia arautzea Lurralde Historikoko foru-organoen eskumen esklusiboa da. Gainera, otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren arabera, gaia arautuko duen arau-xedapenak foru araua izan behar du, foru araua baita Batzar Nagusien lehen mailako arau-adierazpena.

El Territorio Histórico de Bizkaia ejerce, una competencia exclusiva que no está ni puede estar condicionada por el ejercicio de las competencias propias que ejerza el Parlamento Vasco, como ya lo ha hecho a través de la Ley 1/2014, de 26 de junio, reguladora de código de conducta y de los conflictos de intereses de las personas que ocupan cargos públicos. La finalidad de ambas normas es la misma: garantizar un ejercicio íntegro, transparente, imparcial y responsable de las personas nombradas cargos públicos en el desempeño de sus funciones. La presente Norma Foral, despliega un modelo propio encaminado a prevenir, estableciendo los mecanismos e instrumentos necesarios para ello.

La Norma Foral se enmarca, además, en un eje estratégico del gobierno foral, como es el de buen gobierno, entendido en una acepción amplia. Uno de los pilares (no el único) de esa noción es, sin duda, el desarrollo de unos principios de ética pública. Esta disposición normativa se encuadra en esa política, pero no agota –ni mucho menos- sus efectos o resultados.

En definitiva, la presente Norma Foral persigue salvaguardar la objetividad en el ejercicio de las personas designadas cargos públicos forales, garantizar la dedicación en el desarrollo de sus funciones, asegurar la primacía de los intereses públicos, mediante la articulación de mecanismos dirigidos a paliar o evitar la aparición conflictos de interés durante el ejercicio como cargo público foral.

## III

La Norma Foral se estructura en seis Títulos, cuarenta y un artículos, seis disposiciones adicionales, cuatro disposiciones transitorias, una disposición derogatoria y otra final.

Brevemente el contenido de los seis títulos citados es el siguiente:

El Título I se ocupa de regular las disposiciones de carácter general. En primer lugar, define cuál es objetivo de la presente norma: a) Establecer aquellos principios encaminados a garantizar el buen gobierno a los que deben adecuar sus conductas y actuación como cargos públicos forales. b) Definir, regular y establecer mecanismos e instrumentos de prevención y resolución de conflictos de interés en el ejercicio de sus funciones y contribuyan a garantizar un modelo de buen gobierno. c) Identificar aquellos supuestos en que los conflictos de interés e incompatibilidades se puedan plantear. d) Determinar el estatuto del cargo público foral, particularmente en todo aquello que afecta al régimen de incompatibilidades. e) Incorporar un sistema de garantías para el cumplimiento de lo establecido en esta Norma Foral y desarrollar el régimen sancionador.

Asimismo, en este primer título se regula la importante materia del ámbito de aplicación de la Norma Foral, que se extiende a dichos cargos públicos forales que se enuncian. Se prevé, asimismo, la elaboración de un catálogo de tales cargos públicos forales.

El Título II aborda los principios éticos y de buen gobierno que deben regir la actuación como cargos públicos forales. Tales principios se redefinen en esta Norma Foral teniendo en cuenta, sin embargo, la regulación estableci-

Kasu honetan, Bizkaiko Lurralde Historikoak eskumen esklusibo bat erabiltzen du, eta eskumen hori ez dago eta ezin da egon Eusko Legebiltzarrak darabiltzan eskumen propioen pean. Izan ere, Legebiltzarrak dagoeneko baliatu du eskumen hori, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen bidez. Arau bien helburua bera da: kargu publikodunek beren eginkizunak betetzean modu zintzo, garden, inpartzial eta arduratsuan jardungo dutela bermatzea. Baina foru arau honek prebentziora zuzendutako eredu propio bat garatzen du, eta horretarako beharrezkoak diren mekanismoak eta tresnak ezartzen.

Gainera, foru araua foru-gobernuaren ardatz estrategiko batean sartzen da, gobernu onaren ardatza deritzonean, kontzeptu hori adierarik zabalenean ulerturik. Nozio horren zutabeetako bat (ez bakarra) etika publikoko printzipio batzuen garapena da, zalantzarik gabe. Eta arau-xedapen hau politika horren barruan sartzen da; baina ez ditu inola ere agortzen haren ondorioak edo emaitzak.

Azken finean, foru arau honen bidez, objektibotasuna zaindu nahi da foru-kargu publikodunen jardunean; dedikazioa bermatu nahi da haien eginkizunak betetzeko orduan, eta interes publikoen nagusitasuna ziurtatu nahi da. Eta, horretarako, foru-kargu publiko batean aritu bitartean interes-gatazkak arindu edo saihesteko mekanismoak ezarri nahi dira.

## III

Honela dago egituratuta Foru Araua: sei titulu, berrogeita bat artikulu, sei xedapen gehigarri, lau xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bakarra.

Labur azalduta, hau da sei tituluen edukia:

I. tituluan, xedapen orokorrak arautzen dira. Lehenik, zehazten da zein den arauaren xedea: a) Ezartzea gobernu ona bermatzeko zer printzipiotara egokitu behar dituzten foru-kargu publikodunek beren jokabideak eta jarduna. b) Kargu publikodunen jardunean interes-gatazkak prebenitu eta konpontzeko mekanismoak eta tresnak definitu, arautu eta ezartzea, gobernu onaren eredu bat bermatzeko. c) Identifikatzea zer kasutan ager daitezkeen interes-gatazkak eta bateraezintasunak. d) Foru-kargu publikodunaren estatutua arautzea, bereziki bateraezintasun-araubidearekin lotutakoari dagokionez. e) Foru arau honetan ezarritakoa betetzeko bermeen sistema bat sartzea, eta zehapen-araubide bat garatzea.

Horrez gainera, foru arauaren aplikazio-eremuaren arlo garrantzitsua arautzen da lehen kapitulu honetan; eremuak barne hartzen dituen foru-kargu publikodunak azaltzen dira. Orobat, aurrez ikusita dago foru-kargu publikodun horien katalogo bat egitea.

II. tituluak, berriz, foru-kargu publikodunen jarduna zuzendu behar duten printzipio etikoei eta gobernu onaren printzipioei heltzen die. Printzipio horiek foru arau honetan definitzeko orduan, kontuan hartu da Eusko Legebiltzarra-

da en la Ley 1/2016, de 26 de junio, del Parlamento Vasco. Así, los principios éticos se concretan en los siguientes: Ejemplaridad; Integridad; Objetividad; Imparcialidad; Responsabilidad; Franqueza; y Respeto. También se establecen los principios de buen gobierno, que se proyectan sobre los siguientes ámbitos: Liderazgo; Gobierno Abierto; Excelencia profesional; Promoción a la cultura de modernización; Eficiencia en el uso de los recursos; y responsabilidad por la gestión; y se completa con los principios de relación con la ciudadanía. Por último, se presenta una relación de instrumentos para la materialización de los principios éticos y de buen gobierno.

La prevención y detección de los conflictos de interés es la materia que se regula en el Título III de la presente Norma Foral. Sin duda, se trata de una de las cuestiones nucleares de esta nueva normativa. La regulación se inicia con la delimitación de qué se entiende por conflicto de interés y la sistematización de las distintas modalidades de conflicto, esto es, previo, durante y posterior al ejercicio como cargo público foral. Asimismo, se regula un sistema de alerta temprana para la detección de los conflictos, así como el deber de abstención. De conformidad con la regulación más avanzada en estas materias, se desarrollan después: todos los supuestos de prevención de conflictos de interés “ex ante” y durante el ejercicio como cargo público foral, señalando asimismo las limitaciones y prohibiciones posteriores en el ejercicio de actividades privadas que puedan colisionar con el interés público. También se prevén las limitaciones patrimoniales en participaciones societarias, y se regula el procedimiento para garantizar el control y gestión de los valores y activos financieros de quienes ocupen cargos con competencias reguladoras, de supervisión o de control sobre las sociedades mercantiles que los emitan.

Por su parte, el Título IV en su Capítulo I, se dedica a regular el tema del Estatuto la persona nombrada cargo público foral, con previsiones puntuales en torno al nombramiento de las direcciones generales y asimiladas, así como con la exigencia de cumplimentar una declaración responsable junto con el acto de nombramiento. El sistema de incompatibilidades se prevé en el Capítulo II de ese Título y aborda temas más clásicos como la dedicación exclusiva, la retribución única y algunas limitaciones e incompatibilidades, con especial referencia a los supuestos en los que cabe la compatibilidad del ejercicio como cargo público foral con actividades privadas y con actividades públicas, así como, con cargos electivos, previendo después, una regulación específica en lo que afecta a actividades formativas y docentes, así como la necesidad de solicitar en todo caso la declaración de compatibilidad, salvo en los supuestos que se estipule una mera comunicación previa.

El Título V tiene por objeto la importante materia de definición de los órganos e instrumentos del sistema de garantías. En este sentido, la vigilancia y el cumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente Norma Foral serán atribuidas al Órgano de Garantía que a través de Decreto estipule la Diputada o Diputado del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, o quién ostente en su momento dichas competencias. Sus funciones se detallan a través de la presente Norma Foral. En ese mismo título se regulan asimismo las declaraciones de actividades, y bienes e intereses, así como el régimen de registros, y el informe que el Órgano de Garantía debe enviar a Juntas Generales sobre el grado de cumplimiento de las obligaciones de las perso-

ren ekainaren 26ko 1/2016 Legean ezarritako araudia. Printzipio etikoak, hain zuzen, honako hauek dira: Eredugarritasuna, zuzentasuna, objetibotasuna, erantzukizuna, zintzotasuna eta begirunea. Gobernu onaren printzipioak ere ezartzen dira, eremu hauetan ezartzen direnak: Lidergoa; gobernu irekia; bikaintasun profesionala; modernizazio-kulturaren sustapena; efizientzia baliabideen erabileran, eta kudeaketaren ziozko erantzukizuna, bai eta herritarrekiko harremanetarako printzipioak ere. Azkenik, printzipio etikoak eta gobernu onaren printzipioak gauzatzeko tresnen sorta bat aurkezten da.

Interes-gatazken prebentzioa eta detekzioa foru arau honen III. tituluan arautzen dira. Zalantzarik gabe. araudi berriaren alderdi nagusietako bat da. Hasteko, zehazten da zer den interes-gatazka, eta gatazkaren modalitateen sistematizazioa egiten da; hain zuzen, foru-kargu publikoan aritu aurretik, bitartean eta ondoren gerta daitezkeen gatazka moten sistematizazioa. Horrez gainera, gatazkak detektatzeko alerta goiztiarreko sistema bat arautzen da, bai eta abstentziorako betebeharra ere. Ondoren, gai hauen arloko araudi aurreratuenarekin bat, interes-gatazkak prebenitzeko kasu guztiak garatzen dira, foru-kargu publikoan aritu aurrekoak eta bitartean sor daitezkeenak. Halaber, interes publikoarekin talka egin dezaketen jarduera pribatuetan zer muga eta debeku dauden adierazten da. Orobat aurreikusten dira sozietate-partaidetzen gaineko ondare-mugak, eta prozedura bat arautzen da baloreak eta finantza-aktiboak jaulkitzen dituzten merkataritza-sozietateak arautzeko, ikuskatzeko edo kontrolatzeko eskumenak dituzten kargudunen balore eta aktiboen kontrola eta kudeaketa bermatzeko.

Bestalde, IV. tituluko I. kapituluan foru-kargu publikodun izendatutako pertsonaren estatutua arautzen da, zuzendari nagusien eta antzeko kargudunen izendapenari buruzko aurreikuspen zehatz batzuk ezartzen dira. Halaber, erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharra ezartzen da, izendapen-egintzarekin batera. Bateraezintasunen sistema, berriz, IV. tituluko II. kapituluan arautzen da, eta gai ohikoagoei heltzen die, hala nola dedikazio esklusiboa, ordainsari bakarra eta zenbait muga eta bateraezintasun. Horrez gainera, beren-beregi aipatzen dira bateragarritasun-kasuak, foru-kargu publikoaren eta jarduera pribatuen, jarduera publikoen edo hautapenezko karguen artekoak. Ondoren, prestakuntza- eta irakaskuntza-jarduerei buruzko arauketa espezifiko bat ezartzen da, eta bateragarritasun-deklarazioa beti eskatzeko betebeharra, aurretiko komunikazioa besterik eskatzen ez den kasuetan izan ezik.

V. tituluan, garrantzi handiko arlo bat arautzen da: bermeen sistemaren organoen eta tresnen definizioa. Foru arau honetan ezarritako betebeharrak betetzen direla zaintzeko eta haiek betearazteko eskumenak Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko diputatuari — edo halako diputaturik ezean, haren eskumenak dituenari— edo dekretu bidez erabakitako berme-organoari emango zaizkio. Berme-organoaren eginkizunak foru arau honetan zehazten dira. Titulu berean, jardueren aitorpena, ondasun eta interesena eta erregistroen araubidea arautzen dira, bai eta foru-kargu publikodunek foru arau honetako betebeharrei dagokienez duten betetze-mailari buruz berme-organoak Batzar Nagusiei

nas designadas cargos públicos forales recogidas en esta Norma Foral.

Por último, el Título VI prevé un completo régimen sancionador mediante la tipificación de las infracciones y la regulación de las pertinentes sanciones y de la prohibición de contratar. Se incluye igualmente una serie de actuaciones previas al procedimiento sancionador y otros tipos de disposiciones relativas a la resolución, prescripción y responsabilidades derivadas.

Se recogen asimismo una serie de disposiciones adicionales, transitorias, una derogatoria y otra final.

bidali behar dien txostena ere.

Azkenik, VI. tituluan zehazpen-araubide oso bat jasotzen da, non arau-hausteak tipifikatzen diren eta zehazpenak eta kontratatzeko debekua ezartzen diren. Zehatzeko prozeduraren aurreko zenbait jarduketa ere jasotzen dira, bai eta ebazpenari, preskripzioari eta ondoriozko erantzukizunei buruzko beste xedapen mota batzuk ere.

Orobat jasotzen dira zenbait xedapen gehigarri eta iragankor, derogatzaile bat eta azken xedapen bat.

# TÍTULO I.- DISPOSICIONES GENERALES

## Artículo 1.- Objeto

Es objeto de la presente Norma Foral:

a) Establecer aquellos principios encaminados a garantizar el buen gobierno a los que deben adecuar sus conductas y actuación de las personas designadas cargos públicos forales.

b) Definir, regular y establecer mecanismos e instrumentos de prevención y resolución de conflictos de interés en el ejercicio de sus funciones y contribuyan a garantizar un modelo de buen gobierno.

c) Identificar aquellos supuestos en que los conflictos de interés e incompatibilidades se puedan plantear antes, durante y después del cese de los cargos públicos forales.

d) Determinar el estatuto de la persona designada cargo público foral, particularmente en todo aquello que afecta al régimen de incompatibilidades.

e) Incorporar un sistema de garantías para el cumplimiento de lo establecido en esta Norma Foral y desarrollar el régimen sancionador.

## Artículo 2.- Ámbito de aplicación

1.- La presente Norma Foral es aplicable a los y a las miembros de la Diputación Foral y a quienes ostenten la condición de alto cargo según la normativa foral aplicable.

2.- También será aplicable al resto de cargos públicos forales que ocupen puestos de máxima responsabilidad directiva de aquellas entidades del sector público institucional foral.

3.- La presente Norma Foral en cualquier caso se aplicará a los siguientes cargos públicos forales:

a) Al Diputado o a la Diputada General, en los términos previstos en la Disposición Adicional Primera de este Norma Foral.

b) A los Diputados y Diputadas Forales.

c) A las Direcciones Generales de la Administración Foral y asimiladas a las mismas en la norma de creación o en el acto de nombramiento.

# I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

## 1. artikulua.- Xedea

Foru arau honen xedea hau da:

a) Ezartzea gobernu ona bermatzeko zer printzipiotara egokitu behar dituzten foru-kargu publikodunek beren jokabideak eta jarduna.

b) Kargudun publikoen jardunean interes-gatazkak prebenitu eta konpontzeko mekanismoak eta tresnak definitu, arautu eta ezartzea, gobernu onaren eredu bat bermatzeko.

c) Identifikatzea zer kasutan ager daitezkeen interes-gatazkak eta bateraezintasunak, foru-kargu publikoek kargua utzi aurretik, ondoren, eta karguan dauden bitartean.

d) Foru-kargu publikodunaren estatutua arautzea, bereziki bateraezintasun-araubidearekin lotutakoari dagokionez.

e) Foru arau honetan ezarritakoa betetzeko bermeen sistema bat ezartzea, eta zehapen-araubide bat garatzea.

## 2. artikulua.- Aplikazio-eremua

1.- Foru arau hau Foru Aldundiko kideei eta aplikatu beharreko foru araudiaren arabera goi-kargudun direnei aplikatu behar zaie.

2.- Orobat aplikatu behar zaie foru-sektore publiko instituzionaleko entitateetan goreneko zuzendaritza-erantzukizuneko postuetan dauden foru-kargu publikodunei.

3.- Betiere, foru-kargudun hauei aplikatuko zaie Foru Arau hau:

a) Ahaldun Nagusiari, foru arau honen lehen xedapen gehigarrian ezarritakoa kontuan hartuta.

b) Foru-diputatuei.

c) Foru Administrazioko zuzendari nagusiei, eta antzekoei (sorrera-arauan edo izendapen-egintzan antzekotzat jotakoei).

d) A las Direcciones Generales o Gerencias de las entidades vinculadas o dependientes de la Administración foral conforme a la estructura del sector público institucional foral prevista en la normativa foral.

e) Cualesquiera que en su momento reglamentariamente puedan añadirse, que serán publicados en el Portal de Transparencia.

### Artículo 3.- Catálogo de Cargos Públicos forales

1.- La Diputación Foral, a propuesta del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales o, en su defecto, del departamento competente en razón de la materia aprobará, en el plazo de tres (3) meses desde la entrada en vigor de la presente Norma Foral, un Decreto Foral en el que se recoja un catálogo de las personas nombradas cargos públicos forales, tanto de la Administración Foral como de sus entidades vinculadas o dependientes, que se encuentran sometidos a las obligaciones recogidas en la presente Norma Foral.

2.- El citado catálogo incluirá, al menos, la denominación, adscripción departamental y la identidad de la persona que ocupa el cargo público.

3.- El citado Catálogo tendrá efectos constitutivos y se difundirá por los medios pertinentes y, en todo caso, en el Portal de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, para hacer efectivo el principio de transparencia regulado en la Norma Foral 1/2016, de 17 de Febrero, de Transparencia de Bizkaia.

4.- La gestión y actualización del Catálogo corresponderá al Órgano de Garantía establecido en el Título V de la presente Norma Foral.

5.- Los departamentos forales, organismos autónomos, y demás entidades que integran el sector público institucional foral deberán trasladar al Órgano de Garantía, con carácter inmediato, la información referente a la creación, modificación, refundición o supresión, de cualquier cargo público del sector público foral del Territorio Histórico de Bizkaia.

## TÍTULO II.- PRINCIPIOS ÉTICOS Y DE BUEN GOBIERNO

### Artículo 4.- Principios éticos y de buen gobierno

1.- Cada cargo público foral ejercerá sus funciones y responsabilidades de acuerdo con los principios éticos, de buen gobierno y de relación con la ciudadanía establecidos en este Título.

2.- Los principios éticos, de buen gobierno y de relación con la ciudadanía recogidos en la presente Norma Foral serán aplicables sin perjuicio de los que se recogen en el segundo punto de la Disposición Adicional Primera de la Ley del Parlamento Vasco 1/2014, de 26 de junio, reguladora del código de conducta y de los conflictos de intereses de dichos cargos públicos.

d) Foru Administrazioari atxikitako edo haren menpeko entitateetako zuzendari nagusiei edo kudeatzaileei, foru araudian ezarritako sektore publiko instituzionalaren egiturarekin bat.

e) Geroago erregelamenduz gehitu daitezekeen gainerakoei. Gardentasunaren Atarian eman beharko da foru-kargu publikodun horien berri.

### 3. artikulua.- Foru-kargu publikodunen katalogoa

1.- Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak —edo hura egon ezean, gaian eskumena duen sailak— proposaturik, Bizkaiko Foru Aldundiak foru-dekretu bat onetsiko du, foru-kargu publikodunen katalogo bat jasoko duena, foru arau hau indarrean jarri eta hiru (3) hilabeteko epearen barruan. Katalogo horretan jasota geratuko dira Foru Administrazioko foru-kargu publikodunak eta hari atxikitako edo haren menpeko erakundeetakoak, baldin eta kargu publikodunok foru arau honetan xedatzen diren betebeharrak bete behar badituzte.

2.- Katalogoan, kargu publikoaren postuaren izena, postuaren atxikipen-saila eta kargua duen pertsona jasoko dira, gutxienez.

3.- Eratze-ondorioak izango ditu, eta bitarteko egokien bidez egingo da haren zabalkundea, eta, beti, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasunaren Atarian, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan arautuko gardentasunaren printzipioa gauzatzeko.

4.- Katalogoaren kudeaketa eta eguneratzea Berme Organoari egokituko zaio, zeina foru arau honen V. tituluan ezartzen den.

5.- Foru-sailek, organismo autonomoek eta foru-sektore publiko instituzionaleko gainerako entitateek berehala jakinarazi behar diote Berme Organoari Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-sektore publikoko edozein kargu publikoren sorrera, aldaketa, bateratze edo kentzeari buruzko informazioa.

## II. TITULUA.- PRINTZIPIO ETIKOAK ETA GOBERNU ONARENAK

### 4. artikulua.- Printzipio etikoak eta gobernu onarenak

1.- Foru-kargu publikodunek printzipio etikoekin eta gobernu onaren eta herritarrekiko harremanaren printzipioekin bat jardungo dute beren eginkizunak eta ardurak betetzean. Printzipio horiek titulu honetan ezartzen dira.

2.- Foru arau honetan jasotzen diren printzipio etikoak eta gobernu onaren eta herritarrekiko harremanaren printzipioak aplikatu beharrekoak izango dira, ezertan eragotzi gabe Eusko Legebiltzarren ekainaren 26ko 1/2014 Legearen lehen xedapen gehigarriaren 2. zenbakian jasotzen direnak. Lege horren bidez, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dira.

## Artículo 5.- Principios Éticos

Los principios éticos a los que deberán adecuar su conducta cada cargo público foral son, al menos, los siguientes:

a) Ejemplaridad. Deberá actuar en todo momento de forma ejemplar con la finalidad de mantener la confianza de la ciudadanía en sus instituciones y servir de modelo a las personas que trabajan en sus respectivos órganos o entidades que dirigen.

b) Integridad. Será inflexibles en lo que a ética y sinceridad se refiere, actuando de forma coherente con el principio del servicio público y con otros principios como la imparcialidad, la honestidad, la transparencia, la eficacia o la legalidad, tanto en el ejercicio de cualquiera de sus funciones públicas como en aquellos aspectos que puedan trascender a su papel institucional.

c) Imparcialidad: Mantendrá siempre un criterio independiente y ajeno a todo interés particular.

d) Objetividad. Deberá tomar las decisiones de manera imparcial y equitativa con respeto a los intereses generales de la organización, poniendo en conocimiento inmediato a la institución cualquier conflicto de interés que pueda afectarles en la toma de decisiones.

e) Responsabilidad. Será responsable de sus decisiones y acciones.

koak izan edo ez— izendatzeko, gaitasun- eta esperientzia-irizpideak erabiliko dira; irizpideok dagokion araugarapenaren bidez zehaztuko dira, edo kargu horietan arituko diren pertsonek karguari dagokion eginkizunak zuzen beteko dituztela bermatzeko Foru Aldundiak berebere gi onetsiko dituen protokoloen bidez.

2.- Foru-kargu publikodunen izendapena hautazkoa izango da, eta kontuan izango ditu kargudun horien profesionaltasuna eta gaitasuna bermatzeko artikulu honen 1. zenbakian ezarritako printzipioak.

3.- Foru-kargu publikoek izendapenaren aurretik, curriculum vitaea emango diote izendapena egin behar duen aginte edo organoari. Horretarako erabaki dadin modeloaren araberako curriculum horretan jarduera profesionala zehaztuko da. Curriculum hori Foru Aldundiaren Gardentasun Atarian argitaratuko da, izendapenerako ezarri daitezen protokoloen arabera.

4.- Izendapen-egintzarekin batera, foru-kargu publikodunek erantzukizunpeko adierazpen bat sinatu beharko dute, zeinean hau adieraziko duten:

a) Ez direla zigortuak izan askatasunaz gabetzeko zigorra ezartzen duen epai irmo batez. Halako zigor batekin kondenatuak izan badira, kondena bete arte itxaron beharko dute.

b) Ez direla zigortuak izan epai irmoz, faltsutze-delitu, askatasunaren aurkako delitu, ondare eta ordena sozio-ekonomikoaren aurkako delitu, antolamendu juridikoaren aurkako delitu, ordena publikoaren aurkako delitu eta —bereziki— terrorismo-delituengatik. Halako delitu bat egin badute, aurrekari penalak ezeztatu arte itxaron beharko dute.

c) Ez zaiela desgaikuntza-zigorra ezarri, uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearekin bat. Halako desgaikuntza bat ezarri bazaie, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaikuntza-aldia amaitu arte itxaron beharko dute.

d) Ez zaiela ezarri desgaikuntza edo etendura enpleguan edo kargu publikoan aritzeko, zigor eta administrazio arloetako legeetan ezarritako moduan. Halakorik izan badute, zehapen-aldia amaitu arte itxaron beharko dute.

e) Ez zaiela zehapena ezarri Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan ezarritako arau-hauste larri edo oso larrietako bat egiteagatik. Halakorik izan badute, zehapen-aldia amaitu arte itxaron beharko dute.

## II. KAPITULUA.- FORU-KARGU PUBLIKODUNEN BATERAEZINTASUNEN SISTEMA

### Lehen atala.- Foru-kargu publikodunen dedikazioa eta ordainsariak

### Artículo 19.- Dedicación exclusiva de las personas designadas cargos públicos forales.

Dichos cargos públicos forales ejercen sus funciones en régimen de dedicación exclusiva, no pudiendo compatibilizar tal desempeño por sí o mediante sustitución o apoderamiento, con el de cualquier otro puesto, cargo, representación, profesión o actividad, sea público o privado, por cuenta propia o ajena, salvo las excepciones recogidas en esta Norma Foral.

### 19. artikulua.- Foru-kargu publikodunen dedikazio esklusiboa.

Foru-kargu publikodunek modu esklusiboan betetzen dituzte beren eginkizunak, eta karguan dauden bitartean ezin dira aritu —ez haiek zuzenean, ez ordezko edo ahalorde bidez— ezein lanpostu, kargu, ordezkaritza, lanbide edo jardueratan, publiko zein pribatutan, dela norberaren konturako, dela inoren konturako, alde batera utzita foru arau honetan jasotako salbuespenak.

### Artículo 20.- Retribución única

1.- Las retribuciones de las personas nombradas cargos públicos forales serán públicas, en los términos previstos en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia. Tales retribuciones se determinarán de acuerdo con la normativa aplicable en cada caso y dentro de los límites previstos en la Norma Foral que apruebe los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de cada ejercicio.

2.- Tales cargos públicos forales no podrán recibir más de una retribución con cargo a los presupuestos de las Administraciones Públicas o de sus entidades dependientes o vinculadas, ni ninguna otra que provenga de una actividad privada salvo las excepciones recogidas en esta Norma Foral.

3.- Las retribuciones de dichos cargos públicos forales serán determinadas en los presupuestos de la Diputación Foral de Bizkaia. Además de la retribución consignada en los presupuestos, tales cargos públicos forales solo podrán percibir, en su caso las cantidades que perciban en concepto indemnizaciones por los gastos en que hayan podido incurrir por razón del servicio

4.- Quienes ejerzan como cargo público foral y ostenten la condición de personal funcionario de carrera, en el supuesto de que sean declarados en la situación administrativa de servicios especiales, podrán seguir percibiendo las retribuciones que legalmente les correspondan por antigüedad, en los términos y con el alcance que prevea para esta situación administrativa la legislación de función pública que les resulte de aplicación.

### 20. artikulua.- Ordainsari bakarra

1.- Foru-kargu publikodunen ordainsariak publikoak izango dira, Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan ezarritako moduan. Kasuan-kasuan aplikatu behar den araudiaren arabera zehaztuko dira ordainsariok, eta ekitaldi bakoitzean Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauan ezarritako mugak izango dituzte.

2.- Foru-kargu publikodunek ezin izango dute ordainsari bat baino gehiago jaso administrazio publikoen edo haien mendeko edo haiei lotutako entitateen aurrekontuen kontura, ezta jarduera pribatutik datorren beste ezein ordainsari ere, foru arau honetan ezarritako salbuespenen kasuan izan ezik.

3.- Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrekontuetan zehaztuko dira foru-kargu publikodunen ordainsariak. Aurrekontuetan izendatutako ordainsariaz gainera, foru-kargu publikodunek zerbitzua dela-eta egiten dituzten gastuen ordainak ere jaso ahal izango dituzte; baina, ordainsariaz gainera, horiek besterik ez.

4.- Karrerako funtzionario izan eta foru-kargu publiko batean daudenek, zerbitzu berezietako administrazio-egoeran badaude, jarraitu ahal izango dute legez antzinatasunaren zioz dagozkien ordainsariak kobratzen, aplikatu behar zaien funtzio publikoari buruzko legeriak administrazio-egoera horretan ezartzen duen moduan eta eraginarekin bat.

### Artículo 21.- Derechos pasivos y Seguridad Social

1.- La percepción de pensiones de derechos pasivos y de la Seguridad Social es incompatible con el ejercicio de cualquier cargo público foral, con la excepción de aquellas pensiones que sean declaradas como expresamente compatibles por la legislación de la seguridad social.

2.- En aquellos casos en que se incurra en un supuesto de incompatibilidad, la percepción de la pensión, de acuerdo con los que se prevea en la legislación aplicable, quedará en suspenso al momento del nombramiento, recuperándose automáticamente una vez que se produzca el cese en el cargo, de acuerdo con lo previsto en la legislación aplicable.

### 21. artikulua.- Eskubide pasiboak eta Gizarte Segurantza

1.- Eskubide pasiboen pentsioak eta Gizarte Segurantzaren pentsioak jasotzea bateraezina da edozein foru-kargu publiko betetzearekin, salbu eta Gizarte Segurantzaren legeriak berariaz bateragarritzat jotzen dituen pentsioen kasuan.

2.- Bateraezintasun-kasua gertatzen denean, foru-kargu publikoduna izendatzen duten momentuan etenda geratuko da pentsioaren jasotzea —aplikatu behar den legerian jasotzen denarekin bat—, eta, kargua uzten duenean, automatikoki berreskuratuko du pentsioa jasotzeko eskubidea, aplikatu behar den legeriarekin bat.

## Sección Segunda.- Limitaciones e incompatibilidades derivadas de la condición de cargo público foral

## Bigarren atala.- Foru-kargu publikoduna izatearen ondoriozko mugak eta bateraezintasunak

## Artículo 22.- Limitaciones e incompatibilidades

1.- El desempeño como cargo público foral está sujeto a las limitaciones e incompatibilidades previstas en esta Norma Foral.

2.- Con carácter general, y salvo las excepciones previstas en esta Sección, el desempeño como cargo público foral exigirá en todo caso dedicación exclusiva.

## Artículo 23.- Naturaleza excepcional de las compatibilidades

De acuerdo con el principio general de dedicación exclusiva recogido en esta Norma Foral, el desempeño como cargo público foral solo será compatible con aquellas actividades públicas o privadas expresamente recogidas en la presente Norma Foral o con aquellas otras que se prevean en las leyes.

## Artículo 24.- Compatibilidad con actividades privadas

1.- El ejercicio como cargo público foral podrá ser compatible con las siguientes actividades privadas:

a) La administración del patrimonio personal o familiar, con las salvedades y limitaciones previstas en los artículos 16 y 17 de esta Norma Foral.

b) La participación ocasional en congresos, jornadas, seminarios, talleres, cursos, conferencias, así como en coloquios, debates o programas de medios de comunicación social, siempre que no sea consecuencia de una relación de trabajo o de un contrato mercantil de prestación de servicios, así como no sean participaciones inherentes al ejercicio de las funciones de la persona nombrada cargo público foral, en cuyo caso no podrán ser retribuidas salvo la percepción de indemnizaciones por razón del servicio.

c) La comercialización y publicación de la producción y creación literaria, artística, científica o técnica, salvo que traiga causa de una relación de trabajo o de un contrato, sea del carácter que fuere, de prestación de servicios.

d) La participación en fundaciones, asociaciones, organizaciones no gubernamentales o entidades sin ánimo de lucro, así como en aquellas otras entidades que resulten de interés social o que promuevan valores sociales, salvo en aquellos casos en que en esas entidades se desempeñen cualquier tipo de funciones o tareas en las que medie retribución.

2.- En cualquier caso, el desarrollo de las actividades recogidas en el punto anterior no podrá impedir o menoscabar el estricto cumplimiento de los deberes y obligaciones de la persona que ostenta un cargo público foral, ni comprometer la imparcialidad o la independencia del ejercicio de sus funciones o perjudicar al interés público.

## Artículo 25.- Compatibilidad con actividades públicas

## 22. artikulua.- Mugak eta bateraezintasunak

1.- Foru-kargu publikodunek foru arau honetan ezarritako mugak eta bateraezintasunak izango dituzte.

2.- Atal honetan adierazitako salbuespenak alde batera utzita, foru-kargu publikodunek nahitaezkoa izango dute dedikazio esklusiboz aritzea, beti.

## 23. artikulua.- Bateragarritasunen salbuespen-izaera

Foru arau honetan ezartzen den dedikazio esklusiboaren printzipio orokorrarekin bat, foru-kargu publikoa betetzea bakarrik izango da bateragarri foru arau honetan edo legeetan ezartzen diren jarduera publikoekin edo pribatuekin.

## 24. artikulua.- Bateragarritasuna jarduera pribatuekin

1.- Foru-kargu publikoa betetzea bateragarri izango da jarduera pribatu hauekin:

a) Norberaren edo familiaren ondarea administratzea, foru arau honen 16 eta 17. artikuluetan ezarritako salbuespen eta mugekin.

b) Noizean behin parte hartzea biltzar, jardunaldi, mintegi, tailer, ikastaro, hitzaldi, mahainguru, eztabaida edo gizarte-komunikabideetako programetan, betiere parte-hartze horiek ez badira lan-harreman baten edo zerbitzuak emateko merkataritzako kontratu baten ondorio, eta foru-kargu publikodunaren eginkizunari ez badagozkio. Azken kasu horretan, ez da ordainsaririk emango parte-hartze horiek direla-eta, zerbitzuaren zioz sortutako gastuen ordainak izan ezik.

c) Sortutako nahiz produzitutako literatura-, arte-, zientzia- edo teknika-lanak merkaturatzea eta argitaratzea, non eta ez diren lan-harreman baten edo zerbitzuak emateko kontratu baten ondorio.

d) Parte hartzea fundazio, elkarte, gobernuz kanpoko erakunde edo irabazi-asmorik gabeko erakundeetan, bai eta gizartearen interesekoak direnetan edo balio sozialak sustatzen dituztenetan, entitate horietan eginkizun edo zeregin ordainduak egiten diren kasuetan ezin ezik.

2.- Dena den, aurreko zenbakian adierazitako jardueretan aritzeak ezin izango du eragotzi kargu publikodunaren eginbeharrak eta obligazioak zuzen eta zorrotz betetzea, edo betetze horri kalterik egin, eta ezin izango du arriskuan jarri karguan inpartzialtasunez edo independentziaz jardutea, ez eta interes publikoari kalterik eragin ere.

## 25. artikulua.- Bateragarritasuna jarduera publikoekin

1.- El ejercicio como cargo público foral podrá ser compatible con las siguientes actividades públicas:

a) El desempeño de cargo que institucionalmente le correspondan por resultar anejos, implícitos o deriven del nombramiento de cargo público foral que ejerce y aquellos otros para los que resulte expresamente comisionado por las Juntas Generales, la Diputación Foral, el Diputado o Diputada General o, en su caso, los y las Diputadas Forales.

b) El cumplimiento de misiones temporales o de funciones de representación en organizaciones o conferencias locales, forales, autonómicas, estatales, de la Unión Europea, internacionales o cualesquiera otras constituidas entre instituciones de naturaleza pública.

c) La representación en consejos, órganos colegiados y directivos, consejos de administración de organismos, sociedades, consorcios o cualquier entidad pública en las que la Diputación Foral o sus órganos dependientes o vinculados deba estar representada, así como de las sociedades mercantiles y fundaciones dependientes de aquélla en los términos previstos en esta Norma Foral.

2.- Cualquier cargo público foral, en todos aquellos casos previstos en el apartado anterior, no podrá percibir retribución alguna, salvo las indemnizaciones por gastos derivados directamente del ejercicio de sus funciones representativas. A tal efecto, si por necesidades derivadas del ejercicio de funciones públicas tales cargos públicos forales debieran trasladarse fuera del lugar en que radica la Diputación Foral o la entidad instrumental a la que presten servicios, tendrán derecho a que los gastos de viaje, estancia y protocolarios derivados del desplazamiento se les compensen una vez justificados bajo los criterios de eficiencia y economía con los límites que, en su caso, puedan establecerse.

3.- Las asistencias, dietas u otras cantidades devengadas por cualquier otro concepto y que sean consecuencia de la participación como cargo público foral en el desarrollo de sus funciones representativa, serán ingresadas directamente en la Tesorería de la Diputación Foral de Bizkaia.

## Artículo 26.- Compatibilidad con cargos electivos

1.- Las personas componentes del gobierno foral podrán compatibilizar el ejercicio de su cargo con la de miembro de las Juntas Generales de Bizkaia, en los términos previstos en la normativa aplicable.

2.- Dichos cargos públicos forales podrán compatibilizar su actividad con la de cargo representativo de las entidades locales, salvo que en la citada entidad local tengan dedicación exclusiva o dedicación a tiempo parcial, conforme a la legislación vigente.

3.- Asimismo, tales cargos públicos forales podrán compatibilizar el ejercicio de sus funciones con aquellas otras de cargos representativos en las instituciones que se establezcan expresamente mediante ley.

1.- Foru-kargu publikoa betetzea bateragarri izango da jarduera publiko hauekin:

a) Foru-kargu publikodunei izendapenarekin lotuta edo inplizituri egoteagatik edo izendapenaren ondorio izateagatik dagozkien instituzio-karguak betetzea, bai eta Batzar Nagusiek, Foru Aldundiak, Ahaldun Nagusiak edo —hala badagokio— foru-diputatuek berariaz agintzen dizkieten gainerakoak ere.

b) Aldi baterako misioak edo ordezkaritza-eginkizunak betetzea tokiko, Aldundiko, autonomia-erkidegoko, Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetan, edo erakunde publikoen artean eratutako beste batzuetan.

c) Ordezkaritza-lanak betetzea Foru Aldundiak edo haren mendeko edo hari atxikitako erakundeek ordezkaritza izan behar duten organismo, sozietate eta partzuergoetako eta beste edozein entitatetako kontseiluetan, kide anitzeko organo edo zuzendaritza-organoetan, bai eta Foru Aldundiaren mendeko merkataritza-sozietateetako eta fundazioetakoetan ere, foru arau honetan ezarritako moduan.

2.- Aurreko zenbakian jasotako kasuetan, foru-kargu publikodunek ezin izango dute ordainsaririk jaso, ordezkaritza-eginkizunak betetzearen ondorioz zuzenean sortutako gastuen kalte-ordainak izan ezik. Ildo horretan, foru-kargu publikodunek beren eginkizun publikoak bete beharra dela-eta Foru Aldundia edo zerbitzuak ematen dizkioten erakunde instrumentala dagoen lekutik kanpo irten behar badute, eskubidea izango dute lekualdatzearen ondorioz ordaindutako bidaia-, egonaldi- eta protokolo-gastuak behar bezala konpentsa diezazkieten, gastuok justifikatu ondoren, eraginkortasun eta ekonomiako irizpidearen arabera, ezartzen diren mugekin bat etorriz

3.- Ordezkaritza-eginkizunen garapenean foru-kargu publiko jardutearen ziozko beste edozein kontzeptu dela-eta sortutako bertaratze-gastuak, bidaia-sariak edo sortutako beste edozein gastu zuzenean sartuko dira Bizkaiko Foru Aldundiko Diruzaintzan.

## 26. artikulua.- Bateragarritasuna hautapenezko karguekin

1.- Foru Gobernuko kideak beren kargua bateragarri egin ahal izango dute Bizkaiko Batzar Nagusietako kidearen karguarekin, aplikatu beharreko araudiarekin bat.

2.- Orobat, foru-kargu publikodunek beren jarduera bateragarri egin ahal izango dute tokiko erakundeetako ordezkari-karguarekin —non eta tokiko erakundeotan kargudunek ez duten dedikazio esklusiboa edo aldi baterakoa—, indarrean den legeriarekin bat.

3.- Horrez gainera, foru-kargu publikodunek beren eginkizunak bateragarri egin ahal izango dituzte legez berariaz ezartzen diren erakundeetan dauden ordezkari-karguen eginkizunekin.

4.- En cualquiera de los supuestos anteriores, ningún cargo público foral podrá percibir más que una retribución correspondiente a una de las actividades que se refiere este artículo, sin perjuicio de que pueda ser receptor de las asistencias, dietas e indemnizaciones que puedan corresponderle por el ejercicio de la otra actividad, conforme lo previsto en la presente Norma Foral y lo que se establezca en la normativa que resulte de aplicación.

4.- Foru-kargu publikodunek aurreko kasuetako batean ere ezin izango dute jaso ordainsari bat baino gehiago, hau da, artikulu honetan aipatzen diren jardueretako bati dagokiona besterik ez. Hala ere, beste jardueran aritzeagatik dagozkien bertaratze- gastuak bidaia-sariak edo kalte-ordainak jaso ahal izango dituzte, foru arau honetan eta aplikatu beharreko araudian ezarritakoarekin bat.

## Artículo 27.- Otras actividades compatibles: actividades formativas y docentes

## 27. artikulua.- Beste jarduera bateragarri batzuk: prestakuntza- eta irakaskuntza-jarduerak

1.- Las personas que ocupen cargos públicos forales podrán compatibilizar sus funciones con el ejercicio retribuido de la docencia en la enseñanza universitaria o centros de educación superior, pero exclusivamente en aquellos casos en los que su dedicación no supere las sesenta horas lectivas en cómputo anual.

Asimismo, se incluyen las actividades de investigación, y de asesoramiento científico o técnico, siempre que estén vinculadas a la universidad y no estén retribuidas.

1.- Foru-kargu publikodunek beren eginkizunak bateragarri egin ahal izango dituzte unibertsitate edo goi-mailako hezkuntzako zentroetako irakaste-jarduera ordainduarekin, baina dedikazioa urtean hirurogei ordukotik gorakoa ez bada.

Horrez gainera, ikerketako eta aholkularitza zientifiko edo teknikoko jardueretan aritu ahal izango dira, baldin eta jarduerok unibertsitatearekin lotuta badaude eta ordaintzen ez badira.

2.- Asimismo, y con los mismos límites establecidos en el apartado anterior, dichos cargos públicos forales podrán impartir, en razón del cargo que ocupen o de su propia especialidad profesional, cursos, conferencias o seminarios en centros oficiales o en programas de formación del personal funcionario o de personal directivo impartidos por las Administraciones Públicas o por entidades dependientes de estas.

2.- Aurreko zenbakian ezarritako muga berekin, foru-kargu publikodunek beren karguarekin edo espezialitate profesionalarekin lotutako ikastaro, hitzaldi edo mintegiak eman ahal izango dituzte zentro ofizialetan edo Herri Administrazioek edo haien menpeko erakundeek funtzionarioei edo zuzendariei ematen dizkieten prestakuntza-programetan.

3.- No computarán como horas a los efectos previstos en el apartado anterior de este artículo, todas aquellas conferencias, presentaciones o intervenciones en congresos, jornadas, talleres o seminarios o cualquier otra actividad de similares características, en que la persona designada cargo público foral sea invitada en función de su responsabilidad institucional y con el objetivo de difundir las políticas gubernamentales de su respectiva institución. En este último caso, su intervención en tales actividades no podrá ser retribuida, percibiendo únicamente las indemnizaciones por razón del servicio que le correspondan. En el supuesto de que se percibiera alguna retribución, esta deberá ser ingresada en la Tesorería de la Diputación Foral de Bizkaia.

3.- Artikulu honetako aurreko zenbakian adierazitako ondorioetarako, ez dira konputatuko foru-kargu publikodunek kongresu, jardunaldi, tailler edo mintegietara gonbidatzen dituztenean hitzaldi, aurkezpen edo esku-hartzeetan edo antzeko jardueretan egiten dituzten orduak, baldin eta duten ardura instituzionalaren zioz eta haien erakundeko gobernu-politiken berri emateko gonbidatuak izan badira. Azken kasu horretan, halako jardueretan izandako esku-hartzea dela-eta ez dute ordainsaririk jasoko; zerbitzuaren zioz dagozkien kalte-ordainak besterik ez dute jasoko. Ordainsariren bat jasoz gero, Bizkaiko Foru Aldundiko Diruzaintzan sartuko da.

## Artículo 28.- Procedimiento de declaración de compatibilidad

## 28. artikulua.- Bateragarritasuna deklaratzeko prozedura

1.- Cualquier actividad que pretenda iniciar la persona que ostenta un cargo público foral que sea compatible con su actividad deberá ser comunicada con carácter previo al órgano de garantía previsto en la presente Norma Foral.

1.- Foru-kargu publikodunek beren jardunarekin bateragarri den jarduera bati heltzeko, jarduera horren berri eman beharko diote, aurretik, foru arau honetan ezarritako Berme Organoari.

2.- Las actividades compatibles previstas en los artículos 24, 25 y 26 de esta Norma Foral deberán ser objeto de autorización previa, que será otorgada por medio de resolución de la persona titular del departamento competente en la materia a propuesta del órgano de garantía establecido en la presente Norma Foral.

2.- Foru arau honen 24., 25. eta 26. artikuluetan adierazitako jarduera bateragarriak aurretik baimendu behar dira; baimena arloan eskumena duen saileko titularrak emango du, ebazpen bidez, foru arau honetan ezarritako Berme Organoak proposatuta.

3.- Las actividades compatibles relacionadas con el apartado 1 y 2 del artículo 27, también deberán ser objeto de declaración de compatibilidad, que será otorgada por medio de resolución del titular del Departamento competente en la materia a propuesta del órgano de garantía establecido en la presente Norma Foral.

4.- Corresponderá al órgano de garantía en materia de conflicto de intereses el seguimiento, control y, en su caso, incoación de los expedientes informativos o sancionadores que procedan, en relación con el cómputo anual del total de horas determinadas en el artículo 27.1, de acuerdo asimismo con las previsiones recogidas en el artículo 27.3 de esta Norma Foral.

5.- La persona que ostenta un cargo público deberá presentar nueva solicitud de autorización de compatibilidad si se modifican cualquiera de las circunstancias que fueron inicialmente declaradas en solicitud, incluida la comunicación de la finalización de la actividad.

6.- Una vez valorados los requisitos legales de la solicitud, el órgano de garantía emitirá un informe de compatibilidad, que tendrá carácter preceptivo y vinculante cuando sea desfavorable; y carácter preceptivo cuando sea favorable.

Una vez emitido informe favorable, la resolución podrá ser desfavorable cuando el órgano de garantía estime que la actividad solicitada impide o menoscaba el estricto cumplimiento de los deberes y obligaciones del cargo público, o compromete la imparcialidad o la independencia en el ejercicio del mismo, o perjudica el interés público.

7.- El plazo máximo para notificar la resolución correspondiente no podrá exceder de un mes desde la fecha en la que fue solicitada la compatibilidad. Dicho plazo podrá ser ampliado a petición del órgano de garantía.

8.- En los procedimientos de declaración de compatibilidad el silencio tendrá la condición de negativo.

# TÍTULO V.- ÓRGANOS E INSTRUMENTOS DEL SISTEMA DE GARANTÍAS DE LA PRESENTE NORMA FORAL

## CAPÍTULO PRIMERO: ÓRGANOS DEL SISTEMA DE GARANTÍAS DE LA PRESENTE NORMA FORAL

### Artículo 29.- Órgano de garantía

1.- La vigilancia y el cumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente Norma Foral serán atribuidas al Órgano de Garantía que a través de Decreto estipule la Diputada o Diputado del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, o quien ostente en su momento dichas competencias. Éste gozará.lde plena autonomía funcional, por tanto, no podrá solicitar o aceptar instrucciones de ninguna entidad pública o privada

3.- Foru arau honen 27. artikuluaren 1. eta 2. zenbakietan adierazitako jarduera bateragarrien kasuan, berriz, bateragarritasun-deklarazioa ere egin behar da; deklarazio hori arloan eskumena duen saileko titularrak ebazpen bidez emango du, foru arau honetan ezarritako Berme Organoak proposatuta.

4.- Interes-gatazken arloko Berme Organoaren eginkizuna izango da jarraipena eta kontrola egitea eta —hala badagokio— informazio- edo zehapen-espedienteak irekitzea, foru arau honen 27.1 artikuluan ezarritako urteko orduen konputuari dagokionez, 27.3 artikuluan ezarritako aurreikuspenekin.

5.- Foru-kargu publikodunek bateragarritasunerako beste baimen-eskaera bat aurkeztu beharko dute baldin eta hasierako eskaeran deklaratutako inguruabarretako edozein aldatzen bada, jardueraren-amaierari buruzko komunikazioa barne.

6.- Eskaerak legezko betekizunak betetzen dituen aztertu ondoren, berme organoak bateragarritasun-txosten bat emango du; txosten hori aldekoa ez denean, nahitaezkoa eta loteslea izango da; aldekoa denean, berriz, nahitaezkoa.

Emandako txostena aldekoa bada ere, ebazpena kontrakoa izan daiteke, baldin eta berme organoaren iritziz eskatutako jarduerak kargu publikodunaren eginbeharrak eta obligazioak zuzen eta zorrotz betetzea eragozten badu edo betetze horri kalte egiten bazaio, arriskuan jartzen badu karguan inpartzialtasunez edo independentziaz jardutea, edo interes publikoari kalte eragiten bazaio.

7.- Ebazpena jakinarazteko gehieneko epea hilabetea izango da bateragarritasuna eskatu zen egunetik aurrera. Epe hori, baina, luzatu ahal izango da, Berme Organoak eskatzen badu.

8.- Bateragarritasuna deklaratzeko prozeduretan, isiltasunak ondorio negatiboak izango ditu.

# V. TITULUA.- FORU ARAU HONETAKO BERMEEN SISTEMARAKO ORGANOAK ETA TRESNAK

## LEHENENGO KAPITULUA FORU ARAU HONETAKO BERMEEN SISTEMARAKO ORGANOAK

### 29. artikulua.- Berme Organoa

1.- Foru arau honetan ezarritako betebeharrak betetzen diren zaintzeko eta betebehar horiek betearazteko eskumenak Berme Organoari emango zaizkio. Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailak edo une horretan eskumen horiek dituenak sortuko du organo hori, dekretu bidez. Berme Organoak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du; beraz, ezin izango dio jarraibiderik eskatu ezein erakunde publiko edo pribaturi, ez eta halako erakundeen jarraibiderik onartu ere.

2.- El Órgano de Garantía y el personal funcionario que lo conforme y que preste servicios vinculados con la aplicación de la presente Norma Foral, tienen el deber permanente de mantener en secreto los datos e informaciones que conozcan por razón de su trabajo.

3.- En el ámbito material previsto en esta Norma Foral, corresponde al Órgano de Garantía:

a) Elaborar los informes que, con carácter preceptivo, se prevean en la presente Norma Foral, así como atender y resolver las consultas que se planteen en torno a su aplicación.

b) Gestionar el régimen de conflictos de interés y de incompatibilidades de las personas que ostentan cargos públicos forales, llevar a cabo su seguimiento y control, implementando las necesarias medidas de carácter preventivo.

c) Requerir, cuando sea necesario, a las personas que sean nombradas o cesadas como cargos públicos forales el cumplimiento de las obligaciones previstas en esta Norma Foral.

d) Gestionar los Registros de Actividades y de Bienes e Intereses de las personas designadas cargos públicos forales, así como responsabilizarse de la custodia, seguridad e indemnidad de los datos y documentos que en ellos se contengan.

e) Colaborar con otras instituciones u órganos del Gobierno Vasco o de las Diputaciones Forales que tengan atribuidas las mismas finalidades con objeto de mejorar la eficiencia del sistema de vigilancia y control, así como la garantía de la política de integridad.

f) Gestionar la publicación en el Portal web de Transparencia foral la información de las declaraciones anuales de bienes y de actividades del Diputado o Diputada General, los y las Diputados forales, las Jefaturas de gabinete, las Direcciones Generales de los Departamentos y asimismo las Direcciones y/o Gerencias de los Organismos Autónomos, Entidades Públicas Empresariales y entidades del sector público foral. Igualmente, gestionará la publicación en dicho portal de todas las resoluciones de autorización o reconocimiento de compatibilidad que afecten a las personas nombradas cargos públicos, así como las que autoricen el ejercicio de la actividad privada al cese de cualquier alto cargo.

g) Gestión y actualización del Catálogo de Cargos a los que se les aplica la presente Norma Foral.

h) Dar cuenta a la Diputación Foral e informar a las Juntas Generales sobre el grado de cumplimiento de las obligaciones como cargos públicos forales.

i) Aquellas otras atribuciones que le sean conferidas por Normas Forales, disposiciones de naturaleza reglamentaria o Acuerdos de la Diputación Foral de Bizkaia.

### Artículo 30.- Colaboración con el Órgano de Garantía en el ejercicio de las funciones establecidas en esta Norma Foral

2.- Berme Organoak eta hura osatuko duten funtzionarioek —zeinek foru arau honen aplikazioarekin lotutako zerbitzuak emango dituzten— isilpean gorde behar dituzte beren lanaren zioz ezagutzen dituzten datuak zein informazioak, uneoro.

3.- Foru arau honetan ezarritako eremu materialean, eginkizun hauek dagozkio Berme Organoari:

a) Foru arau honetan ezarritako nahitaezko txostenak egitea eta beronen aplikazioa dela-eta sortzen diren kontsultei erantzutea eta kontsultok ebaztea.

b) Foru-kargu publikodunen interes-gatazken eta bateraezintasunen araubidea kudeatzea, haren jarraipena eta kontrola egitea eta beharrezkoak diren prebentzio-neurriak ezartzea.

c) Beharrezkoa denean, foru-kargu publiko izendatutako edo halako kargu batetik kendutako pertsonei eskatzea foru arau honetan ezarritako betebeharrak bete ditzatela.

d) Foru-kargu publikodunen Jardueren Erregistroa eta Ondasunen eta Interesen Erregistroa kudeatzea eta erregistrootan datuen datuen nahiz dokumentuen zaintzaz, segurtasunaz eta egoera onaz arduratzea.

e) Lankidetzan aritzea helburu berak dituzten beste erakunde batzuekin edo Eusko Jaurlaritzako edo foru-aldundietako organoekin, zaintza- eta kontrol-sistemaren eraginkortasuna eta zintzotasun-politikaren bermea hobetzeko.

f) Gardentasunaren web atarian kudeatzea honako kargu publikodun hauen ondasun eta jardueren urteko aitorpenen argitaratzea: Ahaldun Nagusiarenak, foru-diputatuenak, kabineteko buruenak, sailetako zuzendari nagusienak eta erakunde autonomo, enpresa-erakunde publiko eta foru-sektore publikoko entitateetako zuzendarienak eta/edo kudeatzaileenak. Era berean, Berme Organoa kargu publikodunen bateragarritasuna baimentzeko edo onartzeko ebazpen guztiak atari horretan argitaratzeaz arduratuko da, bai eta goi-kargudunek kargua uzten dutenean jarduera pribatuan aritzeko baimena ematen duten ebazpenak ere.

g) Foru Arau hau aplikagarri zaien karguen katalogoa kudeatzea eta eguneratzea.

h) Foru Aldundiari foru-kargudun publikoek betebeharrak zein mailatan betetzen dituzten jakinaraztea eta horren berri ematea Batzar Nagusien aurrean.

i) Foru arau, erregelamendu eta Bizkaiko Foru Aldundiaren erabaki bidez ematen zaizkion gainerako eskuduntzak.

### 30. artikulua.- Berme Organoarekin lankidetzan aritzea foru arau honetan ezarritako eginkizunak betetzeko orduan

1.- Todas las entidades y órganos dependientes de la Diputación Foral, así como las entidades privadas que sean requeridas, tendrán la obligación de colaborar con el Órgano de Garantía en todo lo que afecte a la detección de posibles conflictos de interés o vulneración del régimen de incompatibilidades previstas en la presente Norma Foral.

2.- Asimismo, derivado del deber de colaboración, el resto de Administraciones Públicas cooperarán con el citado Órgano de Garantía con la finalidad de prevenir los conflictos de interés y garantizar la efectividad del régimen de incompatibilidades regulado en esta Norma Foral.

## CAPÍTULO II: DECLARACIONES DE ACTIVIDADES Y DE BIENES E INTERESES DE LAS PERSONAS NOMBRADAS CARGOS PÚBLICOS FORALES.

### Artículo 31.- Declaración de actividades

1.- Cada cargo público foral tiene la obligación de presentar ante el Registro de Actividades una declaración de actividades públicas y privadas que estén desempeñando, tanto por sí mismo como mediante sustitución o apoderamiento, así como aquellas otras desempeñadas durante los dos (2) años anteriores al nombramiento, de acuerdo con lo establecido en el artículo 13 de la presente Norma Foral.

2.- La declaración de las actividades durante el ejercicio como cargo público se extenderá no solo a las actividades que sean susceptibles de retribución o compensación económica, sino también a aquellas otras en las que, en principio, no se perciban compensaciones económicas. Cualquier tipo de actividad pública o privada en la que se perciban indemnizaciones por razón del servicio, asistencias, dietas o cualquier otro tipo de compensaciones deberán ser, en todo caso, declaradas.

3.- Asimismo deberán declarar el inicio y el cese en cualquier actividad pública o privada, durante el desempeño del cargo.

4.- Las declaraciones de actividades derivadas de los supuestos previstos en el apartado anterior, se presentarán en el plazo máximo de tres (3) meses desde la fecha del nombramiento, así como cada vez que se inicie una actividad de conformidad con lo previsto en esta Norma Foral.

5.- Las declaraciones de actividades reguladas en este artículo se presentarán ante el órgano de garantía establecido en la presente Norma Foral. Será, asimismo, competencia de este órgano el examen y supervisión de todas las declaraciones de actividades y, en su caso de apreciar defectos formales. A tal efecto, si se observaran tales defectos, se requerirá a la persona interesada la consiguiente subsanación de los mismos en el plazo máximo de quince días desde su notificación.

6.- El nuevo nombramiento de una persona como cargo público foral que ya viniera ejerciendo responsabilidades de ese carácter en la Administración Foral o en las entidades a las que se extiende su aplicación esta Norma Foral, no requerirán una nueva declaración de activida-

1.- Foru Aldundiaren mendeko entitate eta organo guztiak eta hala eskatzen zaien entitate pribatuak behartuta egongo dira Berme Organoari laguntzera interes-gatazkak eta foru arau honetan jasotako bateraezintasun-araubidearekin lotutako urraketak detektatzen.

2.- Halaber, laguntzeko eginbeharraren ondorioz, gainerako administrazio publikoak lankidetzan arituko dira Berme Organoarekin, interes-gatazkak prebenitzeko eta foru arau honetan arautako bateraezintasun-araubidearen eraginkortasuna bermatzeko.

## II. KAPITULUA: FORU-KARGU PUBLIKODUNEN JARDUEREN ETA ONDASUN ETA INTERESEN AITORPENAK

### 31. artikulua.- Jardueren adierazpena

1.- Foru-kargu publikodunek egiten dituzten jarduera publiko zein pribatuen aitorpen bat aurkeztu behar dute Jardueren Erregistroan —zuzenean edo ordezkapen edo ahalorde bidez egiten dituzten jarduerena—. Aitorpen horretan orobat jasoko dira izendapenaren aurreko bi urteetan egindako jarduerak, foru arau honen 13. artikuluan ezarritakoarekin bat.

2.- Kargu publikoan jardun bitartean aurkeztu behar duten jardueren aitorpenean, kasu guzti-guztiak jaso beharko dira, bai jarduerak direla-eta ordainsaria edo konpentsazio ekonomikoa jasotzen denean, bai konpentsazio ekonomikorik jasotzen ez denean. Aitortu beharrekoak izango dira, beti, edozein jarduera publiko edo pribatutan zerbitzua, bertaratzeak eta bidaia-sariak direla-eta jasotzen diren kalte-ordainak edo beste edozein konpentsazio ekonomiko.

3.- Halaber, karguan jardun bitartean, edozein jarduera publiko edo pribatutan hasi edo amaitu dutela aitortu beharko dute.

4.- Aurreko zenbakian jasotako kasuekin lotutako jardueren aitorpenak aurkezteko, izendapen-egunetik aurrerako hiru (3) hilabeteko epea egongo da, gehienez; eta foru arau honetan xedatutakoarekin bat jarduera bati hasiera ematen zaion guztietan ere aurkeztu beharko da.

5.- Foru arau honetan ezarritako Berme Organoaren aurrean aurkeztuko dira artikulu honetan arautako jardueren aitorpenak. Berme Organoaren eskumenekoa izango da jardueren aitorpen guztiak aztertu eta ikuskatzea, bai eta —hala badagokio— formazko akatsak dauden ebaztea ere. Formazko akatsak badaude, interesdunari errekerimendua egingo zaio akatsok zuzen ditzan hamabost eguneko gehieneko epean— jakinarazpenetik aurrera.

6.- Foru Administrazioan edo foru arau honen aplikazio-eremuko entitateetan kargu-publiko batean jardun duten pertsonek, berriro izendatuak badira foru-kargu publikodun, ez dute egin beharko jardueren beste aitorpen bat, salbu eta indarrean den araudiarekin bat pertsona horiei

des, salvo en aquellos casos en que se hubiere producido alguna variación o modificación sustancial en las circunstancias o exigencias requeridas por la normativa vigente a la persona interesada.

eskatutako inguruabarretan edo betekizunetan funtsezko aldaketaren bat gertatzen den kasuetan.

## Artículo 32.- Declaración de bienes e intereses

## 32. artikulua.- Ondasunen eta interesen aitorpena

1.- Cada cargo público foral tiene la obligación de presentar, ante el Registro de Bienes e Intereses y en los términos que se determinen reglamentariamente, una declaración que abarque la totalidad de sus bienes, derechos y obligaciones de contenido patrimonial.

1.- Foru-kargu publikodunek ondare-edukia duten ondasun, eskubide eta betebehar guztiak jasotzen dituen aitorpen bat aurkeztu behar dute, erregelamenduz zehazten den moduan, Ondasunen eta Interesen Erregistroan.

2.- La declaración patrimonial comprenderá, como mínimo, los siguientes ámbitos:

a) La relación de sus bienes, derechos y obligaciones patrimoniales.

b) Los valores o activos financieros negociables.

c) Las participaciones societarias y el objeto social de las sociedades participadas y de las sociedades de todo tipo en las que tengan intereses la persona declarante, o junto a su cónyuge, cualquiera que sea el régimen económico matrimonial, o persona que conviva en análoga relación de afectividad, así como a través de hijos e hijas dependientes y personas tuteladas.

2.- Ondare-aitorpenean, gutxienez, honako alderdi hauek jasoko dira:

a) Ondare-ondasun, -eskubide eta -betebeharren zerrenda.

b) Balore edo finantza-aktibo negoziagarriak.

c) Partaidetutako sozietateetan eta era guztietako sozietateetan dituzten sozietate-partaidetzak eta sozietateon gizarte-helburua, betiere haietan interesak baditu aitortzaileak, berak bakarrik edo bere ezkontidearekin —ezkontzaren araubide ekonomikoa dena dela— edo berekin antzeko maitasun-harremanean bizi den pertsonarekin batera, edo menpeko seme-alaben edo tutoretzapeko pertsonen bidez.

## Artículo 33.- Régimen de los registros

## 33. artikulua.- Erregistroen erregimena

1.- Los Registros de Actividades y de Bienes e Intereses se adscribirán y gestionarán por el Órgano de Garantía establecido en la presente Norma Foral.

1.- Foru arau honetan ezarritako Berme Organoari atxikiko zaizkio Jardueren Erregistroa eta Ondasunen eta Interesen Erregistroa, eta berak kudeatuko ditu.

2.- Tales registros se instalarán y sus correspondientes asientos insertarán en un soporte de gestión documental que garantice la inalterabilidad y permanencia de los datos, así como su alta seguridad en su acceso y uso.

2.- Erregistro horiek eta haietan egiten diren idazpenak dokumentuak kudeatzeko euskarri batean instalatu eta sartuko dira; euskarri horrek datuen aldaezintasuna eta iraunkortasuna bermatuko du, bai eta haien segurtasuna, sarbidea eta erabilera ere.

3.- Ambos registros tendrán carácter público. El acceso a sus datos se realizará en los términos que se establezcan reglamentariamente y, en todo caso, de acuerdo con lo previsto en la legislación estatal y autonómica sobre protección de datos de carácter personal, así como con lo dispuesto en la legislación básica en materia de régimen jurídico y procedimiento administrativo común. Asimismo, la información contenida en ambos Registros estará sujeta a las obligaciones de Publicidad Activa establecidas en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

3.- Erregistro biak publikoak izango dira. Erregelamenduz ezarritako moduan egingo da erregistroaren datuetarako sarbidea, eta, betiere, izaera pertsonaleko datuak babesteko Estatuaren eta autonomia-erkidegoaren legeetan ezarritakoarekin bat. Orobat, kontuan hartu beharko da zer xedatzen den araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen arloko oinarrizko legerian. Halaber, erregistro bietan dagoen informazioak bete beharko ditu Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauak publikotasun aktiboaren arloan ezarritako betebeharrak.

